

'Lasa-Zabala auzia' Juan Maria Jauregi lekukoaren deklarazioa

Galindo ikerketa desbideratu nahian aritu zela adierazi du Juan Maria Jauregik

Egileak OASeko kideak izan zirela esan zion 1995ean gobernadore zibil ohiari

Eider Goenaga / Madril
Berriemaile berezia

Juan Maria Jauregi Gipuzkoako gobernadore zibil ohiak deklaratu zuen atzo Entzutegi Nazionalen. Esan zuenez, Rodriguez Galindo Guardia Zibileko jeneralekin izandako elkarrizketa batean hark ikerketa desbideratu nahi izan zuen. Jauregik ikerketa-rako batzorde mistoari laguntza ematen zion, eta Galindok pista faltsu bat eman zion, esanez susmo guztiek OASeko kideengana zuzentzen zutela.

BEHIN baino gehiagotan hitz egin zuen Juan Maria Jauregik Enrique Rodriguez Galindorekin Lasa eta Zabala kasuari buruz. Jauregi Gipuzkoako gobernadore zibila zen 1995ean, Alacanteko gorpuk Lasa eta Zabala-renak zirela jakin zenean. Horren inguruan, Jauregik hainbat gestio egin zituen, eta Galindorekin ere bildu zen, Intxaurrendon, horri buruz zuten informazioa eskuratu nahian.

Bi elkarrizketa gogoratzen ditu batez ere Jauregik. Lehen Intxaurrendon izan zen, gorpuk agertu eta denbora gutxira. Egun hartan, Galindok ikerketa desbideratu nahi izan zuela uste du Jauregik, hipotesi faltsu bat eman ziolako. «Behin baino gehiagotan hitz egin genuen horretaz, baina gaia desbideratu nahi izaten zuen. Esaten zidan Frantziako OASekoak izan zirela (Erakunde Armatu Sekretuak)». Hura izaten zen Galindoren erantzun bakarra, baina Jauregiri iruditut zitaion Galindo «kezko gortina» bat jartzen ari zela, «gero ez baitzuten hipotesi horren gaineko ikerketa bat bera ere egin».

Bigarren elkarrizketa Madrilen izan zen, Galindo jeneralek ikastaroa egiten ari zela. Ikerketa Intxaurrendora begira zegoen ordurako. «Afaltzeko geratu ginen Galindorekin, ni eta beste pertsona bat. Aurretik, baina, ados jarri ginen, eta esan genion *El Correo* egunkariak informazio bat kaleratu behar zuela In-



Juan Maria Jauregik, Gipuzkoako gobernadore zibil ohiak lekuko gisa deklaratu zuen atzo Entzutegi Nazionalen.

txaurrondoko kuarteleko guardia zibilak inplikatu, eta Dorado, Bayo eta abarren izenak emanez», deklaratu zuen Jauregik atzo.

Helburua Galindok nola hartzen zuen ikustea zen: «Gaia atera bezain laster, Galindok alde egin zuen, presa zuela esanez». Ez zien ezer erantzun, baina horrek zizuten susmoak berretsi zituela deklaratu zuen atzo Jauregik. Iñigo Iruinen galderei erantzunez kontatu zuen Jauregik Galindori buruzkoa, beste pertsonaren izena eman ga-

be. Jorge Argote abokatuak nor zen galdetu zionean, Jauregik Fernando Lopez Agudin zela adierazi zuen, orduko Barne Ministerioko Komunikazio arduraduna.

Cumbreko telefono kontua, hirukoiztuta

Iruinek Jauregiren bizileku izandako Cumbre jauregiari buruz ere galdetu zion. Hainbat urtez hutsik egon zela adierazi zuen Juan Maria Jauregik, baina telefonoa, argia eta abar ordaintzen

zirela. Jauregik nabarmendu zuen ordaintzen zen guztiak jasoa behar duela Gobernu Zibilean, eta Iruinek datu bat atera zuen argitaratuta: 1983ko abenduaren inguruan, Lasa eta Zabala Cumbren zituztela uste duten egunetan, telefonoaren kontua hirukoiztu egin zen. Jauregik esan zuen berak ez zekiela hori, baina paperetan hala ageri bada halaxe izango dela.

Juan Maria Jauregik Pedro Luis Migueliz Txoforen ondotik deklaratu zuen

Tolosako operazioko bi liburu Intxaurrendoko kuartelean

JUAN MARI JAUREGIK, Enrique Rodriguez Galindorengana Lasa eta Zabalarari buruzko informazio bila joan zenean, Tolosan 1984ko urtarrilean egindako polizia operazioaren inguruan ere galdetu zion. Jauregik azaldu zuenez, bera Legorretakoa izanik (Tolosatik kilometro gutxira dago), operazio hark gertu harrapatu zuen, eta horregatik azaldu zuen interesa Tolosako operazioaren inguruan. Polizia operazio hura Lasa eta Zabalarri igaldekietan ateratako informazioa erabiliz egin

zutela uste da, baina guardia zibil akusatu guztiek ukatu egin dute hori. Izan ere, haien arabera, operazioa Madrilgo zerbitzu bereziekin egin zuten.

Baina atzo Juan Maria Jauregik deklaratu zuen Galindok operazio hari buruzko bi liburu eman zizkiola Intxaurrendoko kuartelera informazio bila joan zenean. Operazioa Guardia Zibileko Madrilgo zerbitzu bereziekin egin zutela egia bada, zaila da azaltzen nola zeuden horri buruzko bi liburu Intxaurrendon.

Ziegak, «puntu beltza» giza eskubideentzat

GIPUZKOAKO egoitza polizia bisitatu zituen Juan Maria Jauregik Gipuzkoako gobernadore zibil izendatu zutenean. «Hori baitzen nire eginbeharretako bat», azaldu zuen atzoko deklarazioan. Horietakoa bisita bat Guardia Zibilak Donostiako Antigua auzoan duen komandantziara izan zela azaldu zuen, eta bisitatu eta berehala hango ziegak ixteko agindu zuela. «Egoera tamalgarririk zeuden, eta ixteko agindu nuen. Gainera, garai hartan Europako Batzordeko giza eskubide-

JUAN MARIA JAUREGI

Jazarpena Migueliz

«Horri buruz galdetzera Intxaurrendora joaten nintzenean, esaten zidaten Migueliz jarraitzea entrenamendu soil bat zela guardia zibil horientzako»

atzo, Miguelizek atzo amaitu baitzuen bere deklarazioa. Hala, Jauregik berretsi egin zituen Miguelizek emandako hainbat datu. Izan ere, Miguelizek esan zuen Lasa eta Zabalarari buruz zekiena epailearen aurrean kontatu ostean jazarpen izugarria jasan zuela, batez ere, Guardia Zibilaren partetik. Jauregik horri buruzko salaketak ere badaudela adierazi zuen, eta horrek frogatzen duela. «Dena dela, Intxaurrendora horri buruz galdetzera joaten nintzenean, esaten zidaten guardia zibil horiek etorri berriak zirela, eta eurentzako Migueliz jarraitzea entrenamendu soil bat zela».

Carlos Marrero guardia zibilaren lagun batek ere deklaratu zuen. Lekuko babestu horren arabera, bere buruz beste egin aurretik, Marrerok kontatu zion berak parte hartu zuela Lasa eta Zabala bahiketan eta hilketan, Intxaurrendon zegoenean. Lekukoak zituen datuek, baina, ez dute bat egiten gertakarien egunekin, eta nahiko nahasiak ziren.